

GAIA: 2022-2023 DENBORALDIRAKO TALDE FEDERATUEN IZENA EMATEKO EPEA
NORENTZAT: GIPIZKOAKO SASKIBALOI ELKARTE GUZTIAK

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu 2022-2023 denboraldirako GSFk antolatzen dituen lehiaketetan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dagoela, eta ondoren zehazten den egunean bukatuko dela:

Senior, junior eta kadete errendimendu taldeak dituzten klubek, beraien taldeak <https://intra-feb.feb.es/oficinawebclub> webguneko "Oficina web de Clubes" plataformatik egin behar dute (FEBak 2021ko ekainaren 21ean irekiko du programa). Bertan erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko dute. Inskripzioa egin ahal izateko, klubaren fitxa sartu beharko da plataforma berdinean. "Oficina Web"-eko eskuliburua GSF-ko webgunean, gisaski.eus, aurkitu dezakete.

Klub Fitxaren datuak (derrigorrezkoak), GSFaren web orrian sartu behar dira, Klubak sarbidean - Klubaren datuak: Klubaren, lehendakariaren eta idazkariaren datuak bete edota berrikusi

Errendimenduko kadete taldeek Diputazioak taldeen inskripzio epea zabaltzen duenean, izenematea Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egin beharko da ere, 2022eko irailaren 9ra arte (lizentziak 2022eko irailaren 17ra arte).

Partaidetzako kadete eta infantilen izen emateak, helburu honetarako Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egingo dira.

- ☐ Lehiaketak: Probintziako gizonezko seniorren 1. eta 2. maila, emakumezkoen seniorrak 1.maila, errendimendu juniorrak, errendimendu kadeteak: **2022ko uztailak 12 (23:59), asteartea**
- ☐ Lehiaketak: Gizonezko seniorrak 3. maila, emakumezko seniorrak 2. maila, parte hartzeko juniorrak: **2022ko irailak 15.**
- ☐ Parte hartzeko kadeteak eta infantilak: **2022ko irailak 15, Foru Aldundian, Internetez.**
- ☐ Lehiaketak: Errendimenduzko eta parte hartzeko miniak eta benjaminak: **2022ko irailak 30, Foru Aldundian, Internetez.**

PLAZA HUTSAK: Honen bidez jakinarazten dizuegu lehen mailan edo errendimenduan jokatu nahi duten probintziako bigarren mailetak edota partaidetzako klubek **IntraFEB bidez, taldea inskribatu beharko dute eskubideak dituzten kategorian eta eskubideak eskatu goragoko kategorian, azken horren inskripzio-kuota ordainduz, uztailaren 12aren 23:59ak baino lehen.** Eskaera egin eta izen-ematea gauzatu duten taldeek izango dute aukera lehen mailetan hutsik geratzen diren plazak betetzeko. (ikusi bete gabeko lekuei buruzkoa, zirkular honen amaieran.)

Epez kanpo iristen den izen-ematerik ez da onartuko, ezta behar bezala beteta ez dagoenik ere.

KIROL ESKUBIDEAK LAGATZEA

Kirol-eskubideak lagatzeko akordioak 2022ko irailaren 1era arte egin ahal izango dira.

GSFn INSKRIPZIO-KUOTA

Aurrerago adieraziko diren ekipoen inskripzio-kuotak 2020/07/06ko Batzar Orokorrek onartua- Kutzabankeko 2095 5009 73 1061453543 kontu korrontean ordaindu beharko da, edozein sukurtsaletan, dirua sartu duen kluba zein den adierazi beharko da, eta **taldeak inskribatzeko unean mari-bel@gisaski.eus helbidera nahitaez bidali beharko den kopia bat eskatuko da.**

2022ko Ekainaren 30a baino lehenago Federazioarekin bere zorrak ordaindu gabe dituzten klubei ez zaizkie inskripzioak onartuko



IZENA EMATEKO KUOTAREN ZENBATEKOA

KATEGORIA	GSFren KUOTA
Seniorrak	380€
Errendimenduko juniorrak eta kadeteak eta Euskadiko Liga	225€
Parte-hartzeko juniorrak eta kadeteak	100€
Errendimenduko Infantilak	150€
Parte-hartzeko Infantilak	75€
Mini Errendimendua	50€

PLAZA HUTSAK (Lehiaketaren oinarriak, 2.6 puntua)

Lehiaketa itxietan postu hutsak gertatzen direnean, hala eskatzen duten taldeek beteko dituzte postu horiek, eta lehiaketa horietarako ezarritako epeetan inskribatuko dira. Lehentasuna izango dute:

1. Beheragoko hurrengo lehiaketan parte hartu duten eta igo ez diren taldeak, sailkapenaren arabera.
2. Jaitsitako taldeak.

Hala ere plaza hutsak geratzen badira, eta GSFk zabalduko epean izena eman dutenekin beteko dira, eta Federazioak erabakiko ditu irizpideak, kirol merituak, geografia, interes orokorra...

GSFren Zuzendaritza Batzordeari baimena ematen zaio aurreikusitako talde erregistratuen kopuruarekin bat ez datozen lehiaketak erregularizatzeko, indarrean dagoen denboraldian lehiaketa bakoitzeko talde-kopurua egokitzeko.

Donostian, 2022ko uztailaren 7an.